**OSASUN SAILA**

**6591**

ERABAKIA, 2008ko urriaren 22koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, erakunde publikoaren 2008ko lan-eskaintza publikoa onesten duena.

Administrazio Kontseiluak erakunde publikoaren estatutu sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz hartu du erabaki hau eta, oro har, erakunde publikoko langileentzat ezarritako arauen arabera, hau da, ondokoak kontuan hartuta: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legea, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 37.1 artikulua, non negoziazio kolektiboko gaien artean sartzen baitira lan-eskaintza publikoetako irizpide orokorrak.

Osasun-sektoreko Mahaiak hartu zuen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa abenduaren 18ko 235/2007 eta ekainaren 3ko 106/2008 dekretuen bidez onartu zen. Erabaki horren eranskinean aurreikusten da lan-eskaintza publikoko deialdi berri bat egingo dela 2008an, 2006ko uztailaren 10eko Erabakian ezarritakoaren arabera eta, zehazki esaten dena da lan-eskaintza horretan gutxienez 2.000 lanpostu eskainiko direla, prozesuaren behin betiko ebazpena emateko unean zenbatzekoak, sortutako lanpostu berriak eta prozesuan zehar hutsik gertatzen diren lanpostuak barne hartuta.

Aurreikuspen horiek betetzeko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren jarraipena egiten duen bitariko batzordeak lan-eskaintza publikoan sartuko diren lanpostuak zehazteko irizpideak erabaki dituela ikusi da.

Adierazitakoaren arabera, zuzendari nagusiak proposatuta, eta erakunde publikoaren estatutuetako 8.5.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak hauxe erabaki du:

ERABAKIA:

***Lehenengoa.–*** Osakidetzako estatutupeko langile finko izateko lan-eskaintza publikorako deialdia egitea erabaki da.

Hautaketa-prozesua oposizio-lehiaketa sistemaren bidez egingo da. Eskainitako lanpostuak betetzeko prozedura eta betekizunak deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

**6591**

ACUERDO de 22 octubre de 2008, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se aprueba la Oferta Pública de Empleo del Ente Público para el año 2008.

El Consejo de Administración adopta el presente Acuerdo conforme a la previsión hecha en el artículo 8.5.f) del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público, así como con carácter general, conforme a las normas que en materia de personal perteneciente al Ente Público contempla la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, de Estatuto Marco del Personal Estatutario de los servicios de salud y la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, cuyo artículo 37.1, apartado l incluye entre las materias de negociación colectiva los criterios generales sobre ofertas públicas de empleo.

El Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud, adoptado por la Mesa Sectorial de Sanidad, y aprobado mediante los Decretos 235/2007, de 18 de diciembre, y 106/2008, de 3 de junio, prevé en su anexo la convocatoria de una nueva Oferta Pública de Empleo en 2008, conforme a lo ya previsto en el Acuerdo de 10 de julio de 2006, y específicamente prevé que el número de plazas a convocar en la presente Oferta sea de un mínimo de 2.000, a computar en el momento de la resolución definitiva del proceso, incluyéndose en éstas las plazas de nueva creación así como las vacantes que se vayan generando a lo largo del proceso.

Considerando que en cumplimiento de dichas previsiones la Comisión Mixta Paritaria de seguimiento del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud ha acordado los criterios concretos para la definición de los puestos a incluir en la Oferta Pública de Empleo.

De conformidad con lo expuesto, a propuesta de la Directora General, y de acuerdo a lo previsto en el artículo 8.5.f) de los Estatutos del Ente Público, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud adopta el siguiente,

ACUERDO:

***Primero.–*** Se acuerda la convocatoria de una Oferta Pública de Empleo en Osakidetza para el acceso a la condición de personal estatutario fijo.

El proceso selectivo será por el sistema concurso-oposición. Las correspondientes convocatorias concretarán el procedimiento y los requisitos para el acceso a las plazas ofertadas.

Erabaki honek eduki beharreko ahalmen juridikoa hartu bezain laster hasiko da hautaketa-prozesuak hasteko jardueren kudeaketa.

***Bigarrena.–*** Deialdian ondokoa sartuko da, erabakitako zehaztapenen arabera:

1.– Esleitzeke geratzen diren lanpostuak bai eta lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren arabera deitutako lehenengo bi lekualdatze-lehiaketetako esleipendunek hutsik utzitako lanpostuak. Orientazio gisa, eta betiere lehiaketa horien amaierako emaitzari lotuta, lehenengo lehiaketara deitutako lanpostuak, guztira, 1.402 izango dira.

2.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan aurreikusita baina oraindik sortzeke dauden 407 lanpostuak, Jaurlaritzaren Kontseiluak lanpostu horiek sortzea onetsi ondoren.

3.– Lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan aurreikusten diren arreta bereziko unitateetako lan-erritmo eta -kargei buruzko azterlanak amaitu ondoren sortutako lanpostu berriak, betiere lan-eskaintza publiko honen prozesuko behin betiko ebazpena eman aurretik Jaurlaritzaren Kontseiluak lanpostu horiek sortzea onartu badu (gutxienez erizaintzako 180 lanpostu eta erizaintzako laguntzaileen 50 lanpostu, azterlanaren lehenengo bi faseei dagozkienak).

4.– Erretiroko edo heriotza-bajen ondorioz sisteman hutsik gelditutako lanpostuak, baita paragrafo honetako lehen puntuaren arabera bigarren lekualdatze-lehiaketako lanpostuak hartzeko epea amaitu aurretik edozein arrazoirengatik sor daitezkeen lanpostu hutsak ere eta, lehiaketa oraindik amaitu gabe balego 2009ko abenduaren 31ra artekoak. 500 lanpostu izan daitezke gutxi gorabehera.

***Hirugarrena.–*** Irizpide hauen arabera eta erabaki honen datan aurreikusitako lanpostuen kopurua 2.539koa da gutxi gorabehera. Eskainitako destinoen behin betiko zerrenda, lanpostu-kopurua zein lanpostuen identifikazioa, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortu duten puntuazioaren arabera, argitaratu aurretik argitaratu beharko da. Txanda irekian zein barne-promozioko txandan eta % 33 edo hori baino gehiagoko ezgaitasuna duten langileek betetzeko gordetako % 5ak osatzen dute eskainitako lanpostuen kopurua.

***Laugarrena.–*** Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizuna izango da dagozkion hautaketa-prozesuetako deialdiaren kudeaketa. Kudeaketa-gomendio horren barruan, berariaz deialdietako oinarriak prestatu, negoziatu eta izapidetzea daude sartuta, bai eta deialdiko lanpostuak zehaztea, epaimahai kalifikatzaileak izendatzea, deialdiak ebaztea eta destinoak esleitzea ere.

***Bosgarrena.–*** Hautaketa-prozesuan onartua izateko, ondoren zehazten diren diru-kopuruak ordaindu beharko dira izena ematerakoan, betiere eskainitako

La gestión de las actuaciones para el inicio de los procesos selectivos se iniciará inmediatamente alcance la necesaria virtualidad jurídica el presente Acuerdo.

***Segundo.–*** Se acuerda que la convocatoria incluirá, en los términos que en concreto se acuerden:

1.– Los puestos que no resulten adjudicados, así como los que dejen vacantes los adjudicatarios de los dos primeros concursos de traslados convocados conforme al Acuerdo de condiciones de trabajo. A título orientativo, y sujeto a la resultante de la finalización de dichos concursos el total de puestos convocados en el primer concurso es de 1.402.

2.– Los 407 puestos pendientes de nueva creación previstos en el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud, una vez aprobada su creación por el Consejo de Gobierno.

3.– Los puestos de nueva creación que se determinen una vez finalizados los estudios de ritmos y cargas de trabajo en unidades de Atención Especializada previstos en el Acuerdo de condiciones de trabajo, siempre que la aprobación de su creación por el Consejo de Gobierno sea previa a la resolución definitiva del proceso de la presente Oferta Pública de Empleo (un mínimo de 180 de enfermería y 50 de auxiliar de enfermería, correspondientes a las dos primeras fases del análisis).

4.– Las plazas vacantes como consecuencia de las bajas vegetativas, así como las vacantes que por cualquier causa puedan generarse hasta la fecha de finalización del plazo de toma de posesión del segundo concurso de traslados previsto en el punto 1 del presente apartado y si éste no hubiera finalizado, hasta el 31 de diciembre de 2009. Se estima una cifra aproximada de 500 puestos.

***Tercero.–*** El número de puestos previsto, conforme a estos criterios, a la fecha del presente Acuerdo, asciende a la cantidad total aproximada de 2.539. La relación definitiva de destinos ofertados, tanto el número como la identificación de las plazas, deberá publicarse con anterioridad a la publicación de la relación de aspirantes que han superado el proceso selectivo por orden de puntuación. El total de plazas ofertadas incluye las que hayan de proveerse en turno libre, en turno de promoción interna, y un cupo del 5% reservado para su cobertura por personal con discapacidad de grado igual o superior al 33%.

***Cuarto.–*** Se encomienda a la Dirección General de Osakidetza la gestión de la convocatoria de los procesos selectivos correspondientes. Dicha encomienda incluirá específicamente la elaboración, negociación y tramitación de las bases de las convocatorias, incluyendo la determinación de los puestos a convocar, la designación de los tribunales calificadores y la resolución de las convocatorias y adjudicación de destinos.

***Quinto.–*** La admisión al proceso selectivo requerirá del abono de los siguientes derechos de inscripción, conforme al grupo de titulación al que pertenezcan los

destinoetarako eskatzen den titulazio-taldearen eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 3. Xedapen Iragankorrean ezarritako sailkapenaren arabera.

| | |
|---|---|
| 1.– A1 taldea (lehengo A taldea) | 25 euro. |
| 2.– A2 taldea (lehengo B taldea) | 20 euro. |
| 3.– C taldea - C1 azpitaldea (lehengo C taldea) | 15 euro. |
| 4.– C taldea - C2 azpitaldea (lehengo D taldea) | 15 euro. |
| 5.– E taldea | 10 euro. |

***Seigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina erabaki honek.

Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 22a.

Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

destinos ofertados, conforme a la clasificación prevista en la Disposición Transitoria 3.ª de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público:

| | |
|---|---|
| 1.– Grupo A1 (antiguo grupo A) | 25 euros. |
| 2.– Grupo A2 (antiguo grupo B) | 20 euros. |
| 3.– Grupo C - Subgrupo C1 (antiguo grupo C) | 15 euros. |
| 4.– Grupo C - Subgrupo C2 (antiguo grupo D) | 15 euros. |
| 5.– Grupo E | 10 euros. |

***Sexto.***– El presente Acuerdo surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra el mismo podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2008.

El Presidente del Consejo de Administración,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

ERANSKINA

| 2008ko LEPean eskaini ahalko diren lanpostuen laburpena. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Lanbide-taldea | | Lekualdatze-lehiaketa | Sortutako lanpostu berriak | Lan-kargatik sortutako lanpostuak (gutxienez) | Guztira |
| A1 | Fakultatibo medikoak eta teknikoak | 485 | 72 | | 557 |
| A2 | Goi-mailako teknikariak | 24 | 20 | | 44 |
| B1 | Osasun diplomatuak | 364 | 88 | 180 | 632 |
| B2 | Erdi-mailako teknikariak | 7 | 5 | | 12 |
| C1 | Teknikari espezialista sanitarioak | 59 | 35 | | 94 |
| C2 | Administrazioko teknikari espezialistak | 16 | 5 | | 21 |
| C3 | Teknikari espezialista profesionalak. | 7 | 5 | | 12 |
| D1 | Osasun teknikari laguntzaileak | 208 | 80 | 50 | 338 |
| D2 | Administrazioko teknikari laguntzaileak | 113 | 67 | | 180 |
| D3 | Teknikari laguntzaile profesionalak | 25 | 0 | | 25 |
| E1 | operarioak | 94 | 30 | | 124 |
| Guztira | | 1.402 | 407 | 230 | 2.039 |
| | Erretiroko edo heriotza-bajen aurreikuspena | | | | 500 |
| Orokorrean, guztira | | | | | 2.539 |

*ANEXO*

| Resumen convocables OPE 2008 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Grupo profesional | | Concurso de traslados | Nueva creación | Creación cargas de trabajo (mínimo) | Total |
| A1 | Facultativos Médicos y Técnicos | 485 | 72 | | 557 |
| A2 | Técnicos Superiores | 24 | 20 | | 44 |
| B1 | Diplomados Sanitarios | 364 | 88 | 180 | 632 |
| B2 | Técnicos Medios | 7 | 5 | | 12 |
| C1 | Técnicos Especialistas Sanitarios | 59 | 35 | | 94 |
| C2 | Técnicos Especialistas de Admón. | 16 | 5 | | 21 |
| C3 | Técnicos Especialistas Profesión. | 7 | 5 | | 12 |
| D1 | Técnicos Auxiliares Sanitarios | 208 | 80 | 50 | 338 |
| D2 | Técnicos Auxiliares de Admón. | 113 | 67 | | 180 |
| D3 | Técnicos Auxiliares Profesionales | 25 | 0 | | 25 |
| E1 | Operarios | 94 | 30 | | 124 |
| Total | | 1.402 | 407 | 230 | 2.039 |
| | Previsión bajas vegetativas | | | | 500 |
| Total general | | | | | 2.539 |